

**II. ATALA**  
**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Sopuertako Udala****Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren Errolda jendaurrean ikusgai jartzea. 2018 ekitaldia (2018-0085 espedientea).**

Zergapekoei jakinarazten zaie udal-bulegoetan ikusgai daudela honako errolda eta behin-behineko likidazio hauek, jendaurreko informazio-aldian:

— Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga.

Interesdunek errolda eta kobrantza-zerrenda hauen aurrean euren ustez egoki diren erreklamazio edo alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, honako arau hauei jarraikiz:

- a) Aurkezteko epea: 15 egun, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera zenbatzen hasita.
- b) Aurkezteko bulegoa: Udaleko Erregistro Orokorra.
- c) Organoa: Alkate-udalburu jauna.

Halaber, zergapekoei jakinarazten zaie zerga hori honako baldintza hauetan kobratuko dela.

**1. Kobratzeko epea**

a) *Borondatezko epea*: inolako gaitzirik gabe, aurtengo maiatzaren 2tik ekainaren 30era arte, biak barne.

b) *Exekuzio-aldia*: gaitzirik, berandutze-interesak eta, hala dagokionean, premiamenduko prozeduraren kostuak barne, 2018ko uztailaren 1etik hasita, Sopuertako Udalaren zerga-bilketako zerbitzuen bidez.

**2. Ordaintzeko tokia eta modua**

a) *Helbideratutako ordainagiriak*: zergadunek ez dute inolako kudeaketarik egin behar, bankuko helbideratze-kontua mantentzen badute.

b) *Helbideratu gabeko ordainagiriak*: zergapekoek ordainketa egin ahal izango dute euren helbideetan jasoko dituzten inprimakien sorta aurkeztuta Kutxabankekoko edozein bulegotan jendaurreko ordutegian.

c) Inprimakien sorta ez jasotzeak edo ordainketa borondatez egiteko epean ez jasotzeak ez du inolako salbuetsiko ezarritako epean ordaintzeko beharretik. Inprimakien sorta ez bada jaso edo galdu egin bada, Sopuertako Udaleko udal-bulego nagusira jo beharko da.

d) 2018ko uztailaren 1etik aurrera ordainketa premiamendu bidez egingo da.

**3. Jakinarazpena**

Iragarki honek adierazitako kontzeptuengatik zergapean dauden guztientzako jakinarazpenaren ondoreak izango ditu, Zergei Buruzko 2/2005 Foru Arauak, martxoaren 10ekoak, bere 100.3 artikuluan agintzen duenarekin bat etorriz.

**4. Errekurtsoa**

Errolda eta atxikirik dituen likidazioak onesteko ekintzaren aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio alkate-udalburuari, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita eta hilabeteko epean.

Sopuertan, 2018ko apirilaren 5ean. — Alkatea, Emilio Reina Laiseca